

2019-2020 ikasturteko txostena

Aldezlea

Joxin Etxezarreta Odriozola

Arau-esparrua

*Deustuko Unibertsitateko Aldezlearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Araudia*¹ betetzeko, zeinak indarrean dagoen legearen (LOU 6/2001) hamalagarren xedapenean ezarritako oinarriak jasotzen dituen, Aldezleak 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra egindako lanaren Urteko Txostena aurkezten da, araudi horren 15. artikuluari jarraiki: “Aldezleak urteko txostena prestatuko du, aurreko ikasturtean burutu dituen jarduerak zehazteko. Txosten horretan jasoko da zenbat erreklamazio eta zein motatakoak aurkeztu diren, izapidetzeko onartu ez direnak zergatik ez diren onartu, eta izapidetzeko onartuetan zein izan zen emaitza. Txostenean ez da isilpeko daturik edo datu pertsonalik jasoko, interesdunak identifikatzeko modurik egon ez dadin”.

Txosten hau ohiko moduan zabalduko zaio Deustuko Unibertsitateko elkarteari, barruko komunikabideak, estraneta eta sare sozialak erabiliz. Dokumentua Unibertsitateko Aldezlearen webgunean² jarrita egingo da aurkezpen publikoa eta bertan egongo da ikusgai aurreko urteetako txostenekin batera. Aurretik, 2020ko azaroaren 26ko Kontseilu Akademikoan, txosten honen laburpena, Aldezlearen eginkizunaren gaineko gogoetak eta hobetzeko proposamenak aurkeztu dira.

Txostena idazteko orduan, ahalegina egin da unibertsitateko elkarteko kide guztien eskubide eta askatasunak errespetatzeko eta konfidentzialtasun osoa gordetzeko pertsonen eta kasuen tratamenduan, urtean zeharreko jarduketari buruzko informazioaren gardentasuna galdu gabe.

¹ Kontseilu Akademikoak 2013ko martxoaren 14an onartu zuen, eta 2013ko maiatzaren 14an, asteartean, argitaratu zen 45. DUAOn.

² https://www.deusto.eus/cs/Satellite/deusto/eu/deustuko-unibertsitatea-2/deusturi-buruz/nor-garen/aldezlea?cambiodioma=si&_ga=2.208516817.2112527584.1607934482-1074885207.1539265624

EDUKIAK

Aurkezpena (4)

1. Aurre gogoetak eta kontsulta motak (4)
2. Datuak, analisiak eta jarduketaren deskribapena (5)
 - a. Aztertutako gaiak (6)
 - i. Jarduketaren bilakaera (6)
 - ii. Tipologiaren arabera jarduketak (7)
 - iii. Campusaren arabera banaketa (7)
 - iv. Erabilitako hizkuntzaren arabera banaketa (8)
 - v. Sektoreen arabera banaketa (8)
 - vi. Zentroen eta zerbitzuen arabera banaketa (9)
 - vii. Kolektiboaren eta sexuaren arabera banaketa (9)
 - viii. Ikasketen mailaren arabera banaketa (10)
 - ix. Ebazpenak (11)
 - x. Jarduketak eskaeraren eta kolektiboaren arabera (11)
 - b. Datuen balorazioa (12)
3. Jarduketa instituzionalak (15)
 - i. Kanpo jarduketak (15)
 - ii. Ikasleak (17)
 - iii. Bestelakoak (17)
4. Azken gogoetak (17)

Aurkezpena

Txosten hau COVID-19ak baldintzatutako ikasturte berezi, arraro, zail eta ez-ohiko bati buruzkoa izan arren, aurreko urteetako txostenen eskemari jarraituko dio, gutxi gorabehera, aurreko urteetako datuekin konparazio txiki bat egin ahal izateko.

Ohi duen bezala, ikasturte honetan zehar ere Aldezlea zerbitzura laguntza eske hurbildu den pertsona orori laguntzen saiatu da. Arazoak elkarrizketa bidez konpontzen eta adostasunera heltzen ahalegindu da beti.

Gure esker ona adierazi nahi diegu arazoak konpontzen lagundu duten unibertsitateko organoei eta pertsoneri; baita kexa, erreklamazio, kontsulta edo arazoren bat adieraztera eta, orokorrean, haren esku hartzea eskatzera Aldezlearengana jo duten guztiei ere, zerbitzuan erakutsitako konfiantzagatik.

Era berean, barkamena eskatu nahiko genioke Aldezlearen partetik guztiz defendatua sentitu ez denari, edota bere eskubideak aitortuak izan ez direla sentitu duenari.

1. Aurre gogoetak eta kontsulta motak

Ikasturte honetan era honetako jarduketak kudeatu dira:

- **Kexak.** Kasu honetan, interesdunak uste du unibertsitateko organo edo pertsona batek hartutako erabaki batek edo egintza batek bere eskubideak urratzen dituela. Mota honetako erreklamazioak Aldezlearengana iristeko, arazoa konpontzeko eskura dauden beste bide guztiak agortu behar ditu aurretiaz. Alabaina, nahiz eta jakin Aldezleak azken aukera gisa bakarrik jarduten duela, ohikoa izaten da Defentsa bulegora etortzea, arazoa konpontzeko orientazioa, laguntza edo aholkua eskatzeko. Dena delakoagatik errekurtsioa Aldezleari ez badagokio, orduan ez da eskabidea izapidetzen.
- **Kontsultak.** Orientazioa, informazioa edo laguntza behar dute. Gaiak askotarikoak izan daitezke: arauak, administrazio kontuak, zerbaiten funtzionamendua edo elkarbizitzarekin edo lanarekin zerikusia dutenak. Unibertsitateko kudeaketa-organoetako arduradunen aurrean egin ohi dira gestioak, eta, normalean, arazoa azkar konpontzen laguntzen dute. Batzuetan, nahikoa izaten da ematea.
- Aldezlearen eginkizunetan **bitartekaritza** lanak ere badaude. Gero eta gehiago gomendatzen da bitartekaritzaz baliatzea unibertsitateko bizitzako gatazkak konpontzeko, unibertsitateko elkarteko kide edo talde batek eskatuz gero. Aurten ez da bitartekari lanik egin behar izan.
- Eta azkenik, Aldezleak **Ofiziozko jarduketak** egiten ditu ikusiz gero Unibertsitatearen ebazpen edo egintzaren batek edo unibertsitateko

elkarteko kideren batek edo batzuek unibertsitateko kideen eskubideak urratzen dituztela. 2019-2020 ikasturtean zehar ez da Ofiziozko jarduketarik egon.

Kasuen izaeraren arabera, Aldezleak, ebazteko ahalmenik ez duenez, gomendioak edo iradokizunak eman ditzake edo txostenak egin aurkeztutako kexen ondorioz. Agintari akademikoei edo zuzendaritzakoei dagokie kasuan kasuan behar dena egitea.

Izapidetzea onartuz gero, interesdunaren eskabideari dagozkion jarduketei ekiten zaie. Aldezlearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Araudiaren (9. art.) eskakizunak ez betetzen ez diren kasuetan, **ez da onartzen eskabidea izapidetzea**. Webguneko inprimaki bidez jasotako kexa guztiak izapidetu dira. Dena dela, jarduketaren batean gertatu izan da, zenbait kexa unibertsitateko hainbat instantzian izapidetu direnez, Aldezleak instantzia horiek erantzun arte itxaron behar izan duela.

Azkenik, araututako jarduketetatik kanpo, arestian esanda bezala, zenbait pertsona arreta bila eta entzunak izatera etorri dira. Denei eman zaie arreta eta, kasuen arabera, aholkua ere bai.

2. Datuak, analisiak eta jarduketen deskribapena

Atal honetan, landutako gaiari buruzko datu estatistikoak aurkezten dira, 2019-2020 ikasturteko jarduketen laburpen batekin batera.

Kexak eta kontsultak Aldezlearen ohiko gestio pertsonalen bidez ebatzi dira; hots, egoera eta arazoak aztertu dira, kasuarekin zerikusia duen aginte, organo edo zerbitzuarekin hitz egin da eta informazioa edo txostenak eskatu dira. Kasuaren izaeraren arabera, kexak eta kontsultak egiteko, jendeak Aldezlearen bulegora zuzenean jotzeaz gain, telefonoz deitu edo posta elektronikoa ere bidali du. Horrez gain, itxialdi garaian bideokonferentzia izan da arazoak artatzeko eta konpontzeko bidea. Kasuen arabera, txostenak edo gomendioak bidali zaizkie pertsona, zerbitzu edo organoei kalteak konpontzeko edo, orokorrean, zerbitzua hobetzeko.


a. Aztertutako gaiak

Jarraian, honako datu hauei dagozkien grafikoak ageri dira: jarduketen bilakaera, tipologia, campusaren araberrako banaketa, erabilitako hizkuntzaren araberrako banaketa, sektoreen araberrako banaketa, zentro eta zerbitzuen araberrako banaketa, kolektiboaren eta sexuaren araberrako banaketa, ikasketa mailaren


araberako banaketa, ebazpenen egoera eta emaitza, eta, amaitzeko, taula batean aurkezten dira jarduketak, eskaeraren arrazoia deskribapenarekin eta kolektiboen araberako banatuta.

i. Jarduketan bilakaera

Esku hartze gehiago egon dira aurreko ikasturtean baino. Horren arrazoia pandemiaren ondorioz gertatutako egoeretatik sortu diren kexetan aurki dezakegu batez ere.




ii. Jarduketa motak



Eskabide motei dagokienez, kotsultak lautik bat dira; ondorioz, aurreko ikasturteko proportzioa mantentzen da.


Aldezlearen web orriaren inprimakia izan da hasierako izapidetze bidea batez ere. Elkarrizketa pertsonalak eta telefonikoak ere egon dira.

iii. Campusaren arabera




Bilboko campusa da, % 78 duelarik, esku hartze gehien dituen, nahiz eta Donostiako campusa goranzko joera izan.

iv. Erabilitako hizkuntzaren arabera banaketa



Gaztelania da hizkuntzarik erabiliena erreklamazioetan. Ikasturte honetan proportzioa aurreko ikasturtekoa bera da, nahiz eta 10 eskabide gehiago egon diren.


v. Sektoreen arabera banaketa



Ikasleak dira, aurten ere, Defentsa zerbitzua gehien erabili dutenak. 2019-2020 ikasturtean zehar, AZL kolektiboko bi pertsonak eta Irakasle-ikertzaileen kolektiboko pertsona batek izan ezik, jarduketak guztiak ikasleek eskatu dituzte.


Gehienak graduetak ikasleak dira (21), ondoren graduondokoak (7) eta, azkenik, alumni taldekoak (1).

vi. Zentroyen eta zerbitzuen arabera banaketa




Izapidetu diren arazoak, zentroka, honela banatzen dira: Administrazioan eta Zerbitzuetan, 10 jarduketa; Errektoretzan, 3; eta gainontzekoak, 16, fakultateekin zuzenean lotutako jarduketak dira.

vii. Kolektiboaren eta sexuaren arabera banaketa




Berriro ere, Aldezlearengana jo duten emakumeak gizonak baino gehiago dira, baina diferentzia txikiagoa da aurreko urteetan baino. Halaber, ikasturte honetan, unibertsitatean dagoen genero banaketarekin konparatuta, Aldezlearengana joan diren gizonen portzentajea askoz altuagoa da.

viii. Ikasketa mailaren arabera



Ikasketa mailaren arabera, aurreko urteetan bezala, graduako ikasleak izan dira Aldezlearengana gehien hurbildu direnak, 21 jarduketekin guztira. Masterreko ikasleak 4 izan dira, eta doktoregokoak 3.

ix. Ebazpenak



Kexa eta kontsulta guztiak bideratuak izan direla esan dezakegu. Ez aldeko ebazpenek herena izaten jarraitzen dute, aurreko ikasturtean bezala. COVID-19tik sortutako egoera berriei aurre egiteko iradokizunak edo proposamenak izan dira aurtengo berezitasuna; izan ere, horrek eragin zuzena izan zuen unibertsitatearen jokabidean, martxotik hasi eta uztailean ikasturtea amaitu zen arte.

Adibidez, praktikei, mugikortasunari eta abarri buruzko gaiak zegozkien arduradunei helarazi zitzaizkien. Horrelako gaiak dira 'izapidetutzat' jo ditugunak, nahiz eta kasu gehienetan ezin izan zaien aldeko erantzunik eman.

x. Jarduketak eskaeraren eta kolektiboaren arabera

Jarduketak eskaeraren arabera	Ikasleak	II/AZL
Titulua, espedientea eta abar eskatzeko izapideak atzeratzea	3	-
Arazoak ikasle txartelarekin	2	-
Azpiegiturei, instalazioei, espazioen erabilerari eta abarri buruzko kexak	6	-
Arazoak bigarren seihilekoko urrutiko ebaluazioarekin	2	-
Prestakuntza akademikoan COVID-19aren ondorioz sortutako kexak eta aldaketa proposamenak	5	-

Irakasgaiko eta GRALeko tutoreak edo epaimahaiak emandako tratuarekin eta kalifikazioarekin ikasleek duten desadostasunari buruzko kontsultak	2	-
Kexa masterrean ez onartzeari buruz	1	-
Kexa bi hizkuntza ofizialetako batean soilik (gaztelaniaz) komunikatzeari buruz	1	-
Falta larria berraztertzeke eskaera	1	-
Salbuespenezko deialdia ukatzeari buruzko kontsultak	3	-
Ikasle-irakasle arteko harreman arazoak	1	-
Arazoak doktoregoko prestakuntza planarekin	2	-
Lan egoerari buruzko kontsultak	-	2
Senideentzako ikasketa laguntzari buruzko kontsulta eta bitartekaritza	-	1
Guztira	29	3

b. Datuen balorazioa

Hasteko, aurten, mundu osoan, gure gizartean eta, bereziki, unibertsitatean bizitzen ari garen egoeraz hitz egin behar dugu. COVID-19ari buruz ari gara, eta ekarri dituen ondorioez. Unibertsitateko kide bakoitzak geure bizipenak ditugu, bai bizi izandakoari buruz, bai horrek bizitzako esparru guztietan utzi dizkigun eraginei buruz: osasuna, aldartea, lana, familia, lankideak, etab. Horrez gain, aipamen berezia egin nahi nieke COVID-19a zuzenean eta, batzuetan, era krudelean jasan duten pertsonen. Batzuek asko sufritu dute, eta sufritzen jarraitzen dute.

Gure unibertsitatean zentratuz, gogora ekarri nahi dugu konfinamendu garaia, gure jardueran eragin handia izan baitzuen. Egun batetik bestera hustu egin zen unibertsitatea, telelana ezarri genuen, eta irakaskuntza metodoak ez-presentzialtasunera moldatu behar izan genituen. Deustuko Unibertsitateko kide guztiok kalteak jasan genituen, bakoitzak bere esparruan eta lanpostuan: zuzendari eta arduradunak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, irakasleak, ikertzaileak, ikasleak eta haien familiak, enpresa laguntzaileetako langileak, enpresa batzordea eta abar. Aldezleia ere, nolabait esateko, urrutiko arreta

ematera egokitu behar izan zen.

Halako esperientzia bat igarota, eta gutako bakoitzak ahalik eta ondoen erantzun zuela ikusita, komunitate osoari gure esker ona eta zorionak helarazi nahi dizkiogu, baita gauza batzuk hobeto egin genitzakeela apaltasunez aitortu ere.

Hasteko, gogoan dut apirilaren 23an heldu zitzaidan idazkia, txosteneko datuetan jasota ez dagoen arren, asko eragin baitzidan. Bertan, ikasle talde batek lortutako 2.019 sinadura zeuden, Unibertsitateko Zuzendaritzari eta Aldezleari egiten zizkieten zenbait eskaerarekin batera. Gure ustez, elkarrizketa, komunikazioa eta konfiantza dira ziurgabetasun eta tentsio uneak gainditzen lagundu digutenak. Badakit ikasleen ordezkariak, Ikasleen Ganberak, zeregin garrantzitsua izan dutela denbora guztian eta uste dut garrantzitsua dela haien erantzukizuna eta lankidetzarako jarrera baliostea.

Datuetan gehiago sakonduz, Aldezlearen jarduketa edo kontsulta eskaeren kopurua % 45 igo da, aurreko ikasturtearekin alderatuta, azken urteetako batez bestekoa gaindituz. Guztira, 32 jarduketa izan dira, laurdena kontsultak erantzuteko, eta gainontzekoa kexak eta erreklamazioak. Aurreko ikasturteetan bezala, graduako eta graduondoko ikasleak hurbildu dira gehienbat. Aldezlearengana jo duten AZLak eta irakasle-ikertzaileak, berriz, hiru besterik ez dira izan.

Pandemiak eta haren ondorioek eragindako kexek eta kontsultek ekarri dute, batez ere, eskaeren gorakada. Hiru jarduketatik bat pandemiaren baldintzekin edo efektuekin lotuta dago. Era guztietako arazoak izan dira: urrutiko irakaskuntza jarraitzeko zailtasunak, atzerriko unibertsitate batean ikasteko planak alde batera utzi beharra edo erreklamazio ekonomikoak ordaindutako praktikak utzi behar izateagatik. Pandemiak administrazio arloko zenbait nahasmendu ere eragin zituen, batez ere espedienteak eta ziurtagiriak lortzeko atzerapenak, eskatzaileentzat dituzten ondorioekin. Uste dut salbuespenezko egoerak sortutako kexek edo proposamenek salbuespenezko erantzunak izan dituztela batzuetan, nahiz eta arduradunek nahi ez zituztenak izan.

Gainerako jarduketei dagokienez, azpimarratu behar da areagotu egin direla zerbitzu orokorrei (azpiegiturak, hotza ikasgeletan, ikaspostuak, etab.) eragiten dieten kexak. Azkenik, irakasteko eta ikasteko prozesuekin zerikusia dutenak ditugu; alde batetik, ikasle batzuek epaimahaikide edo tutore lanean diharduten irakasleen aurrean sentitzen duten babesik eza eta, bestetik, ebaluazioari eta aurrera egiteari buruzko arauekin lotutakoak.

Aurreko txostenetan egin dudana bezala, unibertsitateko zerbitzuetako prozesuak ondo definituta eta identifikatuta daudela nabarmendu nahiko nuke, eta azken urteotan unibertsitate jarduera asko arautu dela, hainbat araudi, arau akademiko, jarduera protokolo, plan, AUDIT, batzorde tekniko eta abarrekin. Horrek guztiak

unibertsitateko edozein kideri bere eskubide eta interes legitimoen defentsa errazten dio unibertsitateko organoen jarduketan aurrean. Era berean, kaltetutako pertsonari eta arduradunei mota guztietako arazoak behar bezala bideratzen laguntzen die: arazo akademikoak, administratiboak, gatazka txikiak, erreklamazioak eta abar.

Unibertsitateak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea hobetze aldera, gogorarazi nahi nuke aurreko bi txostenetan horri buruz aipatu nuena. Duela bi urte, prozesu eta erabakien gardentasun beharraz idatzi nuen, bai eta ebaluazio-sistemei iruzur egiteagatiko zehapenen gaia aztertu beharraz ere. Iazko txostenean, ikasleen ikasprozesuari eragiten dion guztiari buruz ondo eta garaiz informatzeko beharraz hitz egiten nuen eta, azkenik, harremanetako tratuaz, hau da, harremanen kalitatea zaintzeko beharraz. Azken puntu hori azpimarratu nahi nuke gaur, aztergai dugun ikasturteko kexak ikusita.

Alde batetik, ikasleek entzunak izateko eta arreta jasotzeko duten beharra nabarmendu nahi dut; batzuetan telefonoz baino ez bada ere. Egia da, batzuetan, bizi izan ditugun egoera berezi eta zailengatik, zerbitzuak gainezka edo baldintzatuta egon direla. Hala ere, nire ustez, erakundeak zerbitzuak eta lehen lerroan dauden pertsonak gehiago zaindu behar ditu. Izan ere, ikasleak, tituludunak, ikaslegaiak, familiak eta abar artatzen dituzte, bereziki Idazkaritza Nagusiak, Liburutegiak, Beka zerbitzuak, Alumnik, Nazioarteko Harremanen sailak...

Bestalde, ohartarazi behar dugu ikasleak batzuetan babesik gabe sentitzen direla harreman asimetrikoa dagoenean irakasle, GRALeko epaimahaikide edo tutore eta abarrekin. Elkarrenganako errespetuak eta bataren zein bestearen duintasunak gidatu behar ditu harreman horietako portaerak. Iaz esan nuen, eta berriro diot, lehenik eta behin neure buruari eskatuta, pertsonak tratatzeko modu egokiak izan behar duela gure unibertsitateko bereizgarrietako bat.

Jarduketan balorazio hau amaitzeko, barkamena eskatu nahiko nuke norbait nire ekintzekin deseroso sentiarazi badut, ez baitzen hori nire asmoa. Barkamena eskatu behar diet, halaber, beren kontsultetan edo kexetan arreta desegokia jaso duten unibertsitateko kideei. Edo konfiantza faltagatik Aldezlearengana hurbiltzera ausartu ez direnei.

3. Jarduketa instituzionalak

i. Kanpo jarduerak

Urriaren 2an, 3an eta 4an Aldezleen Estatuko XXIII. Topaketan izan ginen Valladoliden. Gai hauek eztabaidatu ziren:

1. Aldezleen behar bezalako zuhurtzia edo tarteko jarduketak.

Bat nator gaiari buruz atera genituen ondorioekin:

- Aldezleek argibideak eman behar dizkiote interesdunari bere erreklamazioaren ebazpenerako zein organotara jo behar duen jakin dezan. Era berean, aldezleak gaiari buruzko interesa izan behar du, eta kexa aurkeztu duenak organo eskudunaren aurrean egindako jarduketan eta ebazpenaren jarraipena egin.
- Tarteko jarduketak beharrezkoak dira, hau da, planteatutako gaia aztertzea eta, azterketa horretatik ateratako ondorioekin gaia ebatzi behar duen organoaren aurrean esku hartzea, ondorio horiek ebazpenean kontuan hartu daitezzen. Izan ere, tarteko jarduketa hori ez da arduragabekeria, aurrerapen leiala baizik.
- Jakina, Aldezlearen azken jarduketa zuzentzeko neurriak gomendatzea izan beharko litzateke, erreklamazioa jartzeko arrazoi izan diren jokabideak berriz gertatu ez daitezzen.

2. Generoa eta ibilbide profesionala Unibertsitatean

Bat nator gaiari buruz atera ziren ondorioekin:

- Aldezleek unibertsitatean berdintasuna defendatzeko konpromiso irekia eta irmoa hartzen dute, eta helburu horretarako politikak eta programak bultzatzen eta zabaltzen lagunduko dute.
- Aldezleek berdintasunaren arloko araudia bete dadin duten zeregina azpimarratzen dute, eta esparru horretan inplikazio handiagoa lortzea helburu izan behar dutela.
- Gainera, unibertsitateek berdintasunaren arloan espezializatutako taldeak adituekin indartu behar dituztela adierazi da.
- Aldezleen eta berdintasun taldeen arteko koordinazioa hobetu behar da.
- CRUEri eta Espainiako Gobernuari adieraziko zaie beharrezkoa dela Estatu mailako araudi bat onartzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriaren 4. idatzi-zatiaren paragrafo berria garatzeko, haurdunaldia eta amatasuna kontuan hartu daitezzen eta emakumeek kalterik izan ez dezaten egoera horietan igarotako denboragatik.
- Estatuko araudi hori onartu arte, unibertsitate guztiek neurri egokiak hartzea proposatzen da, irakaskuntza ziurtagirietan amatasunagatiko diskriminaziorik gerta ez dadin.
- ANECari adieraziko zaio komeni dela, irakaskuntzaren balorazioari dagokionez, egiaztapenetan erabilitako irizpideak zehaztea; horrela, Zientzia, Teknologia eta

Berrikuntzari buruzko Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriaren 4. idatzizatiaren paragrafo berriak adierazitakoaren ildotik, emandako irakaskuntzaren egungo eskakizun zorrotzak ez dezan amatasunagatiko diskriminaziorik eragin.

3. Diziplina araudiaren ezarpenaren egungo egoera: ikasleen arteko tratu desberdintasuna.

Bat nator gaiari buruz atera ziren ondorioekin:

- Gaur egun, mahaigaineratutako arazoaren behin betiko irtenbide bakarra unibertsitate guztietan berdintasuna bermatuko duen estatu mailako araudi berri bat egitea eta argitaratzea da.
- Horren faltan, aukerarik onena unibertsitateek eurek, LOUn ezarritakoa erabiliz, araudi propioak egitea da, estatutuetan artikulatu ondoren. Irtenbide hori oso unibertsitate publiko gutxik baliatu dute. Unibertsitate pribatuek, gehienbat, araudi propioak garatu dituzte, jokabide arauak eta zehapen araubide espezifikoa jasotzen dituztenak.
- Autonomia erkidegoek gai hori arautzeko gaitasuna dute, baina muga orokor batekin: haien arteko desberdintasun nabarmenik gabeko egoerari eustea. Dirudienez, Galiziak bakarrik ezarri du araudi propioa.
- 1954ko araudiaren aplikazioari buruzko zalantza nagusiak bi arrazoiengatik sortzen dira: faltak interpretatzeko beharragatik, eta araudia ez delako egokia gaur egun planteatzen diren hainbat gaitarako. Horrek egokitzapena egin beharra dakar eta, hori dela eta, hainbat unibertsitatek ez dute aplikatzen araudia.
- CEDUk araudi nazional berri baten beharra azpimarratzen jarraitzen du, eta agintari eskudunei berehala egiteko eta behin betiko argitaratzeko eskatzen die.

Horrez gain, CEDUren urteko batzarra egin zen, eta bertan Batzorde Betearazlearen kudeaketa, 2018ko ekitaldiko txosten ekonomikoa eta 2019rako aurrekontua onartu ziren. Azkenik, Batzorde Betearazle berria aukeratu zen.

4. Ikasleak

Beste behin, *Deusto Campus*aren laguntzarekin, ikasturte honetan bi prestakuntza ikastaro eskaini zaizkie ikasleei. Lehen seihilekoan, "Gatazka modu positiboan kudeatzeko tresnak eta teknikak: negoziazioa eta bitartekaritza" izan zen hizpide, eta bigarren seihilekoan, "Eskola jazarpena eta ziberjazarpena. Prebentziorako eta esku hartzeko tresnak". Biek arrakasta handia lortu zuten, bai deialdiak izandako erantzunean, bai azken ebaluazioan eta bertan parte hartu zutenen asebetetzean.

5. Bestelakoak

Aurreko txostenean, Aldezlearen araudia eguneratzeko eta aldatzeko proposamen batzuk aurkeztu nahi izan nizkion unibertsitateko zuzendaritzari. Ildo horretan, helburua betetzat eman dezakegu. Izan ere, Unibertsitateko Elkarteko errektoreordearekin eta Idazkari Nagusiarekin hitz egin ondoren, Unibertsitateko Zuzendaritzak araudi hori onartu eta 2020ko urriaren 30eko BOUD/DUAO 77an argitaratu berri du. Ez dira funtsezko aldaketak; karguaren identitateari, haren iraupenari eta Zuzendaritza Kontseiluaren eztabaiden berri jakiteko beharrari buruzkoak dira. Eskertzen dut Aldezlea aintzat hartu izana, aldaketa sakonagoak nahi ziren ere.

4. Amaierako gogoetak

Aurreko txostenetan adierazi genituen bi helburuak azpimarratu beharrean gaude: **agerikotasuna eta konfiantza**. Oro har komunitate osoarengandik hurbil, agerian agertu nahi genuke eta, nola ez, haren konfiantza izan, mantenuko langilearena zein katedradunarena, zuzendaritza batzordearena zein langileen ordezkariarena, bekadunarena zein erretiroa hartzera doanarena, zerbitzu buruarena zein administrariarena, ikaslearena zein ikertzailearena, eta abar eta abarrena. Deustuko ekosisteman parte hartzen dugun guztiona. Geure xumean, unibertsitate hobea eta justuago baterako ekarpena egin nahiko genuke eta horretarako beti prest izango ditugu bai belarri, bai aho eta bai esku. Bereziki COVID-19ak sortutako egoera zailean ondoan izango gaituzue behar denerako.

Esker ona adierazi nahi diegu Aldezlearen bulegora jo duten guztiei, zerbitzuan jarritako konfiantzagatik. Espero dugu eman diegun arretan asmatu izana, baita erantzuna espero zutena izan ez denetan ere.

Eta eskerrik asko unibertsitateko elkarteari Aldezleari erakutsitako errespetu eta begiruneagatik.